

**ERDI AROKO HIRIGINTZA
EUSKAL AUTONOMI ERKIDEGOAN
ARKEOLOGIAREN IKUSPUNTUTIK**

HIRI ARKEOLOGIAREN APORTAPENAK

DONOSTIA HIRIBILDUAREN KASUA

Araitz Iparragirre Lekuona

Historiako Gradua

2014/2015 Ikasturtea

Belen Bengoetxea Rementería

Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia Saila. Arkeologia jakintza-arloa

Laburpena

Erdi Aroko hirigintza Arkeologiaren ikuspuntutik lantzen duen lan honetan, lehenik Erdi Aroko hirigintzaren elementu eta ezaugarri nagusiak azaltzen dira. Atal honetan, Euskal Autonomi Erkidegoan sortutako hiribilduen fundazio moduaren datuak ere ematen dira. Jarraian, Hiri Arkeologian murgilduz, honen Britainia Handiko sorreraren eta Europako proiektu nagusien berri ere ematen da eta ondoren, baita penintsulakoen berri ere. Atal honetan momentu hartan berrikuntza gehien praktikan jarri eta oihartzun handiena lortu zuen Tarragonako adibidearen berri ematen da. Gero, marko zabaletik marko txikiagora pasatuz, Euskal Autonomi Erkidegoko egoera legala laburki aurkezteaz gain Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako jarduera arkeologikoen nondik norakoak azaltzen dira hainbat grafikoetan azaltzen diren datuen laguntzaz. Esparru honetan, amaitzeko, Gipuzkoako hiribilduetan egin diren jarduera arkeologikoen gaineko datu bilketa egin ondoren, grafikoetan azaldu eta hainbat ondorio atera dira.

Lanaren hurrengo atalean, Donostia hiribilduaren kasua landu da. Lehenik, Donostia hiria geografikoki eta historikoki kokatu dugu, fundazioaren eta honen garrantziaren berri emanez. Gero Hiri Arkeologiak Donostian izan duen presentzia aztertu nahian, hiribilduaren Parte Zaharrean egin diren esku-hartze arkeologikoen datu bilketa egin da eta hauek, bi grafikoetan aurkeztu dira, batetik Donostiako jarduera arkeologikoak urteetan zehar izan duen bilakaera adierazten duen grafikoa eginez eta bestetik, hiribilduan egin diren esku-hartzeak, ze motatakoak izan diren aurkezten dituen grafikoa osatuz. Datu hauek ezagutu ondoren, Donostia hiribilduko hirigintzak izan dituen eraikuntza faseak, fasez-fase, aurkeztu dira, espazio honetan egon diren lehen okupazio faseetatik, gaur egunera arte.

Ondoren, Hiri Arkeologiak Erdi Aroko hirigintzaren ezagutzan eskaini dituen emaitza eta ekarpenak azaltzen dira, iturri idatziek ezarri eta hautsitako tradizio batzuen berri emateaz gainera. Azkenik, Euskal Herriko Hiri Arkeologiaren gaur egungo egoeraren inguruko konklusioak atera dira, ikerketa metodo honen bitartez lortutako emaitzak gizarteratzeko egin beharreko lanaren premiaren gainean indarra eginaz.

Amaitzeko, lanaren burutzeko erabilitako bibliografia zerrenda eta lana aberastea ahalbideratzen duten zenbait eranskin atxiki dira. Azken hauek, Donostiako Udal Agiritegitik lortutako dokumentuak eta Landa Lanean ateratako argazkiak dira.

AURKIBIDEA

1.Sarrera.....	1
2.Erdi Aroko hiribilduak. Hirigintzaren elementu eta ezaugarri nagusiak.....	2
3.Hiri Arkeologia edota hiribilduen arkeologi-ikerketak	7
3.1.Sorrera. Europako marko teorikoa eta proiektu nagusiak.....	8
3.2.Penintsulako egoera eta proiektu nagusiak	10
4.EAeko hiribilduak eta hiri arkeologia.....	11
4.1.Euskal Autonomi Erkidegoa. Marko legala	11
4.2.EAeko hiribilduetako jardura arkeologikoak.....	11
4.2.1.Gipuzkoako hiribilduetako jardura arkeologikoak	13
5.Donostia Erdi Aroko hiribildua	16
5.1.Sarrera	16
5.2.Hiri Arkeologia Donostian.....	16
5.3.Atzemandako hiriaren eraikuntza faseak	18
5.3.1.Hiribilduaren Fundazioa baino lehen	18
5.3.2.Fundazio aldia: Erdi Aroa, XII-XV. mendeak	19
5.3.3.Aro Berria: XVI-XVIII. mendeak	21
5.3.4.Donostiaren azken bilakaera.....	23
6.Ondorioak	24
6.1.Emaitzak eta ekarpenak.....	24
6.2.Euskal Herriko Hiri Arkeologiaren egoera	26
7.Bibliografia	27
8.Eranskinak	30

1.Sarrera

Esku artean dugun lan hau Historiako gradua bukatzeko egiten den Gradu Amaierako Lana izanik sei hilabeteko epean ondutako lana da eta Erdi Aroko Hirigintza Arkeologiaren ikuspuntutik lantzea du ardatz. Hiribilduei dagokienez, Arkeologia jarduerak Hiri Arkeologiaren marko zabalean egin direnez, Hiri Arkeologiak dituen ezaugarriez ere arduratu gara, eta horren ildoan, Euskal Herriaz gain Penintsulan eta Europan, izan duen ibilbidea ere aipatuko dugu.

Erdi Aroko Hirigintza Arkeologiaren ikuspuntutik izeneko lanaren azpian hainbat arlo jorratzea izan dut helburu: batetik Erdi Aroko Hiribilduaren kontzeptua zehaztu nahi izan da, batez ere, hirigintza eta hirigintzaren inguruko gaiak aztertuz. Era berean, eta hirigintza ezaugarriak ongi ulertzeko, ezinbestekoa ikusi dut, Erdi Aroko hiribilduen sortzea eta garapena ere jorratzea.

Landu dudan esparrua Euskal Autonomia Erkidegoa da. Egia esan, egoera administratiboak eta marko legalak baldintza batzuk inposatzen dituzte eta guzti horrek ekarri dituen ondorioak ere aipatuko ditut, 1990.eko Kultur Ondareari buruzko Legea laburki azalduz eta hiru lurraldeetako hiribilduetan egin diren jarduera arkeologikoak aurkeztuz.

Nire lana, Gipuzkoan eta Donostia Hiribilduan zentratu da gehienbat, eta Donostia Behe Erdi Aroko hiriaren hirigintzaren eta bilakaeraren ezagutza orokorra lortzea izan dut helburu. Alor honetan, beti ere, iturri idatziez gain, urteetan zehar hirian egindako interbentzio arkeologikoen garrantzia eta esangura kontuan hartu dut. Hartara, egin diren indusketa arkeologikoen interbentzio maila eta denboraren joanean egondako gora beherak atzeman asmoz. Euskal Herrian eraiki ziren Erdi Aroko hiribildu guztien artean Donostia aukeratzearen zergatia sinplea izan da. Izan ere, Donostiaren garrantzia historian ez da hutsala izan, batetik Gipuzkoako lehen hiri-fundazioa izan zelako eta bestetik kokalekuaren leku estrategikoa zela eta merkataritzaren garapena zela medio, garrantzia ekonomiko, sozial eta politiko handia izatera iritsi zelako.

Erabili diren iturriak gaiaren inguruan argitaratutako lanak izan dira, hau da, iturri bibliografikoak (bai sintesi lanak, bai artikulatu espezializatuagoak). Hala ere, landa lana, hau da, espazioaren behaketa zuzena ere burutu da Donostiako Alde Zaharrean.

Lortutako datuak tratamendu kuantitatiboa izan dute kasu batzuetan, horren bitartez joerak ikusteko ahaleginetan. Honez gain, Donostiako Udal Agiritegia ere, eranskinetako eranskinek erakusten duten bezala, bisitatu da Donostiako planoak lortu asmoz.

Amaitzeko, GRALaren ezaugarriak direla eta, aspektu asko sakonki lantzea ezinezkoa izan zait eta puntu garrantzitsuenak atzematearekin soilik moldatu behar izan dut.

2. Erdi Aroko hiribilduak. Hirigintzaren elementu eta ezaugarri nagusiak

Hiribilduak Erdi Aroko hiriak izan zirela esan daiteke eta kontzeptua zehaztea zaila baldin bada ere eta hiri bakoitzak ezaugarri ezberdinak izan arren, orokorrean ezaugarri hauek azpimarratu daitezke: Erdi Aroan fundaturiko guneak dira, jaun edo errege batek emandako hiri-gutun baten bidez, hain zuzen. Horregatik izaten dute marko juridiko eta administratibo ezberdina. Ezaugarri morfologiko bereziak dituzte nekazal guneekin konparatuz. Hasteko, kasurik gehienetan, alde zuzenetik aurretik planifikatutako plano erregularrak izaten dituzte, harresi batez inguratua. Gune konpaktuak izaten dira eta azpiegituren presentzia ere nabaritu daiteke. Ezaugarri demografikoei dagokienez, nekazal munduarekin alderatuz dentsitate handia izaten dute eta bertan burutzen ziren jarduera ekonomikoak ere anitzak izaten ziren, merkataritza eta artisautzari lotuak, besteak beste¹.

Hiribilduak botere zentro berritzaletan sortu ziren alde zuzenetik artikulatutako errealitate batean, eta aurreko botere horien “desorekaz” gain, hainbat berrikuntza ekarri zuten hurrengo mendeetan, gune arrakastatsuak bilakatu baitziren hauetariko asko. Beraz, aldaketa sakona eragin zuten, batetik, ingurunean, bigarrenik, espazioaren antolaketan eta hirugarrenik, populazioaren banaketan².

Momentu honetako gune berriak izan arren, ondoren arrakasta izugarria izan zuten hiribildu asko (hiribilduen %60,8an aurrez populazio jakin bat existitzen zen eta %40a bakarrik fundatu zen orube berrietan), alde zuzenetik okupatuta zegoen espazio baten gunean sortu ziren, toponimoak, herrixkak edota instituzio eklesiastikoen

¹QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio & BENGOTXEA REMENTERÍA María Belén, *Arqueología III. Arqueología Medieval y Posmedieval*, UNED, Madrid, 2010, 377. orrialdea.

² Ibidem, 66. orrialdea.

identifikazioak erakutsi duten bezala. Hiribilduen sortzeko kausa ugari egon baldin baziren ere, Gipuzkoaren kasuan, erregeek fundatu zituztenak merkataritza arrazoiengatik, portu-interesengatik edo defentsa arrazoiengatik egin ziren. Biztanleen inizatibaz sortutako hiribilduak, berriz, segurtasuna eta hiribilduak eskaintzen zituen pribilegioak lortzeko asmoz sortuak izan ziren zenbait autoreren iritziz. Arkeologia da ordea, erregeek zein oinarri material eta sozialen gainean burutu zuten operazio hau ikertzeko tresna baliagarriena.

Geografiari dagokionez, ezberdintasun ugari antzematen dira. Izan ere, Araban fundatutako hiribilduen %26 bakarrik dira orube berri batean eraikiak, Gipuzkoan %48 eta Bizkaiak %44 diren heinean. Bestalde, aipagarria da Araban hiribildu bilakatu ziren gotorlekuen kantitatea (8), Bizkaian bina eta Gipuzkoan bakarra izanik. Honez gain, deigarri da kronologikoki XII. mendean fundatutako hiribildu guztiak aurrez existitzen ziren herrixka edo gazteluen gainean fundatu zirela. XIII. mendean berriz, planta berriko fundazioak hasi ziren, XIV. mendean fundatutako gehiengoa modu honetan egin zen neurrian. Azkenik, XIII. mendearen erdialdetik ez da hiribildu bihurtu zen gaztelurik ezagutzen.

Eragileei dagokienean ere, badaude ezberdintasunak, fundazio-iniziatiba erregeena izan zen hiribilduetan alde aurretik okupatutako espazioak baitziren (%68,6) eta XIV. mendearen lehen herenetik, herritarrengandik edo Bizkaiko jaunengandik sortutako hiribilduak planta berriko fundazioak izan ziren (%66,6).

Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharrekoa da, batetik, espazioaren jarraikortasunak ez zekarrela berarekin, gizarte baten eta bere antolamendu eraren mantentzea eta, bestetik, Euskal Autonomi Erkidegoko 1140 eta 1383 arteko hiribilduen formazioa prozesu konplexu eta heterogeneoa izan zela³.

Hirigintza ezaugarri orokorreari dagokionez, gune hauek alde aurreko planifikazio bat erakusten dute oinplanoetan, hots, erregulartasuna espazioen banaketan (kaleetan, orubeetan etab.). Oinplanoak lauangeluarrak edota obalatuak ziren Gipuzkoako

³QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio & BENGOTXEA REMENTERÍA, María Belén, “Las villas vascas antes de las villas: La perspectiva arqueológica sobre la génesis de las villas en el País Vasco.” in *El espacio urbano en la Europa Medieval: Nájera. Encuentros Internacionales del Medioevo*, Solórzano Telechea, Jesús Ángel & Arizaga Bolumburu Beatriz (Koord.), Nájera, 2005, 146-166 orrialdeak.

hiribildu gehienek kasuan eta hiribildu gipuzkoar gehienek zituzten funtsezko hiru elementuak: harresia, trazatu erregularra eta eliza.

Hirigintza elementuei dagokionez, agian hiribildu baten ezaugarri nabariena harresia izatea da. Egia da hiribildu guztiek ez dutela harresirik, baina gehienek bai. Hauek eraikitze erabilitako materiala harria izan zen, nahiz eta, hiribildu batzuen fundazio garaian hiribildua mugatzeko egurra ere erabili zen. Gehien erabilitako eraikitze-teknika harlanduxka izan zen, tamaina handi xamarreko blokeekin eta lerroak eta horma erregularra osatzeko lanketarekin. Metro eta Erdiko lodiera izan ohi zuten batzuetan beste eta honen eta hiribildu barruko etxeen artean espazio libre bat geratzen zen. Nahiz eta, teknika estandarizatuak existitzen zirela ezin den ziurtatu, konfirma daiteke gehiengoak kalitatezko materialarekin eraikiarazten zela eta artisau espezializatuek hartu zutela parte harresien eraiketan.

Harresia, Behe Erdi Aroko elementu garrantzitsuenetako bat zen, murrak baitziren hiriaren ezaugarri. Bi zentzutan zuen garrantzia, batetik, hiriaren defentsa elementua zelako, batik bat, Gipuzkoako Hondarribia eta Donostiaren kasuan, Nafarroa eta Frantziako erreinuetatik hurbil zeudelako. Alabaina, gure lurraldean Erdi Aroko eraso arrisku handiena nobleziaren eta monarkiaren arteko norgehiagokatik eta bando-gerretatik zetorren, eta harresien eraikitze-elementuek armada handien erasoei aurre egiteko gaitasunik ez zuten⁴.

Bestetik, eduki sinbolikoa zuen bi errealitate juridiko ezberdinen muga irudikatzen zuelako eta harresiaren barneko espazioak, Erdi Aroko pentsaeran, izaera sakratua zuelako. Kolektiboaren emaitza zen harresia, hiri baten sortzearen ondoren hasten ziren berau eraikitze lanak.

Harresiko ateen irekidurak, bestalde, bi munduren (hiritarra eta landatarra) arteko topalekuak izateaz gain, hiribilduaren boterearen seinale ere baziren⁵. Hori zela eta, eraikuntza lan sendoak eta zainduak izaten ziren eta horrez gain, elementu funtzional eta sinboliko espezialak zirenez, gainontzeko harresiaren zatiak baino sofistikazio handiagoarekin egin ohi ziren. Ate kantitatea populazioaren, hiribilduaren tamainaren

⁴ BENGOTXEA REMENTERÍA, María Belén “Arqueología de las Murallas Urbanas Medievales en el País Vasco. Nuevas vías interpretativas” in *VELEIA*, 24-25, 2007-2008, 1146-1156 orrialdeak.

⁵ *Ibidem*, 1148. orrialdea.

eta merkataritza fluxuaren baitan zegoen⁶. Bestalde, kontrol fiskala eta zergak kobratzeko gune paregabea ere bazen.

Harresi batzuk defentsa aspektu handiagoa izateko elementu konstruktibo batzuekin sendotzen ziren, hau da, dorreekin. Beste batzuk, erronda pasuak ere bazituzten, Urduña eta Gasteizkoen kasuan, esaterako. Azkenik, baziren fosez harresiaren defentsa sendotzen zuten hiribilduak ere.

XV. mendetik aurrera sortu ziren harresi modernoak, berriz, gotorleku itxurakoak izan ziren, erreinuen interes politikoaren barnean mugak babestearen eta garapen teknologiko militarren ondorioz⁷.

Erdi Aroko hirien barnean bi espazio eremu bereiz zitezkeen; batetik, partikularrei edota pertsona pribatuei zegozkienak (orubeak, etxeak) eta bestetik, kaleak, plazak edota errepideak eta merkatuak, zeinak komunitatearen espaziotzat hartzen baitziren⁸.

Espazio pribatua, berriz, orube eta etxebizitzek osatu ohi zuten eta harresien barruko esparruan lurzoru hiritarraren puskarik handiena osatzen zuen. Teorian harresien barruko espazioa lote berdintsuetan banatzen zen eta orube bana ematen zitzaie biztanleei etxeak berdinean eraikitzeko. Etxe gehienak egurrez eraiki ohi zituzten, eta orubeak zatitu eta aldatzerakoan, ez ziren neurri arbitrarioak erabiltzen, orube berriek proportzionaltasuna mantentzen baitzuten⁹. Alabaina, berdintasunaren teoria hau zalantzan jarri da arkeologiaren bitartez.

XIV. mende amaieraz geroztik, hesien barruko espazio eraikigarri guztiak okupatzen joan ziren. Etxe asko, bizileku eremuaz kanpora zabalduak izateaz gain etxeetako fatxadak pixkana aurreratzen ere joan ziren. Beste batzuetan, etxeei erantsita kanpotik eskailerak egiten zituzten edota harresia bera erabiltzen zuten etxeei eusteko horma nagusizat.

Espazio publikoa, bigarrenez, komunitateak bere jarduerarako baliarazten zuen espazioa zen. Kaleak, kantoiek eta harresiek hiribilduaren barneko mugimenduak

⁶ ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz & MARTÍNEZ MARTÍNEZ, Sergio, *Atlas de villas Medievales de vasconia. BIZKAIA*, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2006, 53- 73. orrialdea

⁷QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio & BENGOTXEA REMENTERIA María Belén., *Arqueología III...*, *Opus. Cit.*, 545. orrialdea.

⁸ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz & MARTÍNEZ MARTÍNEZ, Sergio, *Atlas de villas...*, *Opus Cit.*, 53. orrialdea.

⁹ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz, *Gipuzkoako Hiri Zaharrak*, Bertan, Donostia, 1994, 40-41 orrialdeak.

antolatu eta etxeak eraikitze mugak ezartzen zituzten. Kaleen zabalera zirkulazioaren arabera izan ohi zen, baina Gipuzkoako gehienak 6m-tik beherakoak ziren (Donostiako bost kale nagusi izan ezik). Garrantzia txikiagoko beste kaleak kantoiak izan ohi ziren eta kaleak baino zertxobait estuagoak (haien erdia) ziren. Bigarren hauek kale nagusiak perpendikularki ebakitzen zituzten kale nagusietako joan-etorriak erraztu asmoz. Kaleez gain, gizartearen beste topaleku bat plazak ziren, baina elizaurreak, kale-gurutzeak edo hiriko sarrerak ziren Erdi Aroko hiribilduetako plazak.

Gipuzkoako Erdi Aroko eraikinetan XV. mendera arte gehien erabili zen materiala egurra izan zen. Ordurako, egurra suteen aurrean material ahula zelako, batetik, eta egurraren eskasiagatik, bestetik, beste material batzuk erabiltzeari ekin zioten. Hala ere, baziren harriz eraikitako jauregi bakan batzuk, gizartean itzal handia zuten pertsonenak. Adreilua ez zen asko erabiltzen, baina “verganazo” deiturikoa, hots, adarrak txirikordatuz eta bi aldeetatik buztinez tapatuz eraikitako hormak eta eraikinak, ugariagoak ziren.

Erdi Aroko hiribilduetan hiriko eliteenak ziren eraikin berezi batzuk zeuden: gazteluak, dorretxeak eta jauregiak ziren. Lehenengoak egitura ia-ia militarra zuten, gezi-leiho eta harrizko murru sendoekin. Bigarrenak landako dorretxeen antzekoak ziren, baina gotorleku itxura txikiagoarekin eta bando gerrekin lotuta zeuden jaunen gotorleku pribatuak ziren¹⁰. Harriz eraiki ohi ziren, nahiz eta, barrualdeko egitura egurrezkoa izan ohi zen. Hirugarrenez, egoera aldatzen joan zen heinean, indarkeria gutxiagotzen joan zen heinean, talde batzuk aberastearen ondorioz eta dorretxeei gailurra moztea agintzen zuen legea plazaratu eta gero, besteak beste, jauregiak sortzen joan ziren. Murrak meheagoak izan behar zuten eta ezin zuen babes elementurik eduki.

Azkenik, Beatriz Arizagaren ikerketen arabera, etxe arruntak estuak eta sakonak ziren. Fatxadak zortzi metro izan ohi zituen eta are eta gehiago estutu ziren kontzejuak harrizko artekormak eraikitze mugak agindu zuenean. Familia unitate bakoitzari banatutako orubea bitan zatitzen zen hasieran, eraikitakoa eta espazio irekia, hau da, baratza edo patioa izango zena. Hazkunde demografikoaren ondorioz, solairuak gero eta gehiago irtenarazi zituzten kalera¹¹.

¹⁰BENGOETXEA REMENTERÍA, María Belén “Arqueología de las Murallas ...”, *Opus. Cit.*, 1149 orrialdeak.

¹¹Ibidem, 54-67. orrialdeak.

Orokorrean, badirudi uraren horniketa ez zela berebiziko gaia izan Erdi Aroko hiribilduetan. Uraren garraioa ez zen enpresa publiko edo kolektibotzat ulertzen, baizik eta bizilagun edota familia bakoitzaren lantzat.

Erdi Aroko hiribildu guztietan erlijio eraikinek oso funtzio garrantzitsua izan ohi zuten gizarte hartan (lurperatzeengatik, besteak beste) eta horrez gain komentuak eta ospitaleak ere eraiki ohi ziren¹².

3. Hiri Arkeologia edota hiribilduen arkeologi-ikerketak

Hiribilduei dagozkien ekintza arkeologiko gehienak arkeologiaren adar honen barruan egin dira. Adar hau, Hiri Arkeologia hain zuzen, egun bizirik dagoen hiri batean egiten den arkeologia globala da, hots, hiriaren fundaziotik gaur egunera arteko asentamenduen sekuentzia osoaren gainean egiten den jarduera. Ondokoak dira jarduera honen ezaugarri orokorrak:

-Garai bati ez dio beste bati baino garrantzia handiagoa edo txikiagoa ematen. Garai guztiak dira garrantzitsuak hiriaren bilakaera ezagutu eta ulertzeko.

-Egungo hiriaren momentuko garapenarekin lotura zuzena du. Zentzu honetan, hirietan burutzen diren jarduera arkeologikoak gehienetan prebentzio arkeologiarekin dute lotura. Horregatik oso garrantzitsua da Arkeologia hirigintza plangintzetan integratzea, indusketa eta jarduera gehienak obrak direla eta egiten baitira. Izan ere, askotan Hiri Arkeologia eta Prebentzio Arkeologia sinonimotzat erabili izan dira, baina lehenengoa hiriaren globaltasunean oinarritzen den heinean, azkenekoa puntualki burutzen da eta askotan ez du helburu historikoa izaten¹³.

-Interesgarria da baita ere hiriak bere inguruko lurraldearekin duen harremana ikertzea.

-Hiriak eta gure kasuan hiribilduak toki pluriestratifikatuak dira, hau da, sekuentzia konplexuak izaten dituzte, leku berean jarduera eta eraikin ezberdinak egon direlako denboran zehar.

¹²ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz & MARTÍNEZ MARTÍNEZ, Sergio, *Atlas de villas Medievales, Opus Cit.*, 81-89. orrialdeak.

¹³FRANCOVICH RICCARDO & MANACORDA DANIELE (Edt.), *Diccionario de Arqueología*, Crítica, Bartzelona, 2001, 352-355 orrialdeak.

-Fundazio zaharreko hiri batean, gainera, garai askotako erreto arkitektoniko ugari mantendu direla kontuan izanda, Arkitekturaren Arkeologiak ere badu aukera praktikan jartzeko.

Laburbilduz, eta Hiri Arkeologiaren bide-urratzaileei jarraituz, zera esan daiteke: Hiri Arkeologiak helburu zientifikoa izan behar duela eta helburu zientifiko horren oinarria hiria eta bere bilakaera historikoa ezagutzea izan behar dela¹⁴.

Azkarate eta Solaunen hitzetan berriz, hiri-arkeologia, bere aspektu kronologiko, geografiko, ekonomiko eta sozialetan, hiri fenomenoaren konplexutasunaren atzematean datza, eta ez kuriositate intelektual bat asebetetzeko praktika edo ondare material baten suntsipena moteltzean¹⁵.

Azken hamarkadetan mendebaldeko hirien eraldaketa prozesuek, hirietan ordura arte ezezagunak ziren hondatze prozesuak eragin dituzte eta ondorioz, paraleloki babeserako sentsibilitatea sortzen joan da, ondare arkeologikoaren eta berau kontserbatzeko interbenitu beharraz jabetuz. Egoera honen aurrean Europan jarrera ugari hartu dira eta, horien artean, nagusitutakoa interbentzio arkeologiko globalarena izan da. Alabaina, ondarearen gestioan sortutako arazoak ez dira urriak izan, egungo okupazioaren eraginez etengabeko hondatzea ematen delako.

Hala ere, Hiri Arkeologia definitzeko eta praktikan jartzeko modu ezberdinak egon dira –eta daude- Europan eta komenigarritzat jo dut adar honen ibilbidea labur bada ere, aipatzea. Horrela hobeto uler dateke gaur egungo egoera.

3.1.Sorrera. Europako marko teorikoa eta proiektu nagusiak

Lehen emaitzak Alemania, Polonia eta Sobietar Batasunean lortu baldin baziren ere, Britainiarren interbentzioek (Canterbury, Exeter, Southampton, Winchester...), eragin zuten hiri-arkeologiaren sortzea, 50 eta 60ko hazkunde ekonomikoaren eta Bigarren Mundu Gerra ondoren suntsituta geratu ziren auzoen berreraikitze garaian. 1973an plazaratu zen Biddle eta Hudsonen *The Future of London's Past* liburukiak hasierako

¹⁴Biddle-en proposamena da, BENGOTXEA REMENTERÍA, María Belén, *Opus. Cit.*, 65-66 orrialdeetatik hartuta.

¹⁵AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustin & SOLAUN BUSTINZA, Jose Luis, *Arqueología e Historia de una Ciudad. Los Orígenes de Vitoria Gasteiz (I), (II)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 2013, 61. orrialdea.

etapa aurrendari honen konklusioak atera zituen, zeinak lehen arazo teoriko eta metodologikoen aurrean hartutako estrategia eta metodoak aurkeztu baitzituen¹⁶.

Lehenengo oinarriak jarri ondoren 70. hamarkada dinamikoa izan zen hiri-arkeologiarentzat. Izan ere, interbentziorako programazio-tresna berriak agertu eta tendentzia eta kontzeptuak egonkortu ziren eta diziplina arkeologikoaren metodoak eta helburuak aldatu eta lan-merkatu berria sortu zen, hots, kontratuzko arkeologia.¹⁷

Frantziaren kasuan 1980.ean ospatu zen Tourseko Konferentziak eman zion itzulia egoerari, orduz geroztik, jatorria Erdi Aroan edo aurrerago duten egungo hirietan lanean hasi baitziren. 80. hamarkada, egonkortze-garaia eta proposamen eta proiektuen gauzatzeko-garaia izan zen. Proiektu arkeologikoak biderkatu egin ziren, praktika hego Europara zabaldu zen eta gestiorako eta ikerkuntzarako zerbitzu eta estruktura egonkor berriak sortu ziren. Honekin guztiarekin batera, ordura arte, mahai gainean izandako printzipio teoriko batzuk kuestionatu eta metodologia arazo batzuk planteatu zituzten. Hamarkada honetan, Frantziak zeresan handia izan zuen jarduera honetan 1984an Toursen ikerkuntzak programatu, emaitzak erregulariki ebaluatu eta eremu arkeologikoen potentzialtasuna ebaluatzeko hainbat tresna sortu baitziren.

Hurrengo hamarkadako urteak, krisi urteak izan ziren, autore asko esperientziaren amaiera garaitzat hartzera iritsi zirelarik. Gertaera honen kausak hiru izan ziren Quirós Castelloren aburuz. Lehena, hiri-arkeologiaren hasierako planteamendu teorikoen eta azken emaitzen kontraesan handia¹⁸. Bigarrena, marko administratibo eta legala, behar berrietara egokitzen diren erreformen inguruko eztabaida, behar ziren baliabideen eta eskuragarri zeudenen ondorioz. Eta hirugarren arazoa, gestio-arkeologia eta ikerketa-arkeologiaren aurkaritza izan zen. Izan ere, nahiz eta, induskatutako estratu gehienak garai klasikoaren ondorengokoak izan, akademikoki beste garai batzuk garrantzitsuagozat hartzen jarraitu zen. Honegatik, ikertzaileek ez zuten bildutako datuen garapenean gehiegi sakondu eta marko interpretatibo egokiak ere ez zituzten sortu, Erdi Aroko eta Erdi Aro ondorengo garaietako ikerkuntzak gara zitezten.

Azken hamarkadetan, ordea, “Hiriaren Arkeologia” ikerketa modu berria garatu da. Egungo hirietan egiten diren obrek (berreraikitzeak, operazio espekulatiboak,

¹⁶ FRANCOVICH RICCARDO & MANACORDA DANIELE (Edt.), *Opus. Cit.*, 352. orrialdea.

¹⁷ QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio, “¿Excavar en las...” *Opus. Cit.*, 112. orrialdea.

¹⁸ *Ibidem*, 115. orrialdea.

aparkalekuak, hirigintza planak...) depositu arkeologikoen hondatze masiboa eragin dute eta horregatik egungo ondarearen legediak interbentzio arkeologiko oro desagertu baino lehen dokumentatzea eskatzen du. Ondorioz, hirietako depositu bakoitza aztarnategi handi bakar bat bailitzan gestionatzea eragin du, beti ere, hiriaren beraren aldakuntza jarraituz eta garai kronologiko guztiei garrantzi bera emanaz¹⁹.

3.2. Penintsulako egoera eta proiektu nagusiak

Espainian Hiri Arkeologiaz prozesu jarraitu bat bezala era globalean teorizatu duen liburu bakarra Rodríguez Temiñoren *Arqueología Urbana en España* da²⁰. Liburu honetan aipatzen da arkeologia jarduerak, hirietako okupazioaren lehen faseetan edo hirien aurreko okupazio faseetan egin direla, zeinak dokumentazio idatziarekin identifikatu eta ikertzea ia ezinezkoa diren.

1985ean *Ley de Patrimonio Histórico Español* onartu ondoren, Hiri Arkeologia Modernoaren sorrera eman zen Penintsulan. Komunitate autonomoek ondare historiko eta arkeologikoaren babeserako eskumenak eskuratu zituzten eta honek, gizartearen kontserbaziorako sentimendua zabaldu zuen. Lehen udaletxe demokratikoen hiri-planetan babeserako neurriak hartu zituzten eta zenbait zerbitzu arkeologiko berri eta hainbat berri ere sortu ziren²¹. Penintsula barneko eraginaz gain, eragin handiena kanpotik etorri zen, Ingalaterra eta Frantziatik, hain zuzen, hauen esperientzia zuzena bertan aplikatzen hasi zelako eta baita toki hauetan lan egiteko erabilitako lan metodoa zabalduz joan zelako ere.

Penintsulako Hiri-Arkeologian berrikuntza gehien ekarri zituen kasu bat aipatzearen, Tarragonaren kasua aipagarria litzateke. Izan ere, 80. hamarkadaren bigarren erdian (1986-1989), jada, mugaz gaindi ere oso ezaguna den TED'A (*Taller Escola d'Arqueologia*) deituriko arkeologia taldea sortu zen. Lortutako dibulgaziozko eta zientzia-produkzio ugariak eredu bilakarazi zuen penintsulako arkeologoentzat taldea. Lanerako kalitate handiko metodologia eta planteamenduak erabili zituen zirko eta anfiteatro erromatarren indusketetan eta Espainian Hiri-Arkeologiako talde batetik hurbilen egon den arkeologo-taldea osatu zuten. 1990ean udaletxeko talde aldaketarekin

¹⁹ QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio & BENGOETXEA REMENTERIA María Belén., *Arqueología III...*, *Opus. Cit.*, 378. orrialdea.

²⁰ RODRÍGUEZ TEMIÑO Ignacio, *Arqueología Urbana en España*, Ariel Patrimonio, Bartzelona, 2004, 22. orrialdea.

²¹ *Ibidem*, 50. orrialdea.

taldea desagertu eta honen ordezkotzat izan zen CAUT sortu zen, nahiz eta, ez zuen aurreko taldearekin jarraipenik egin eta udalaren inplikazioa amaitutzat eman zen²².

4.EAeko hiribilduak eta hiri arkeologia

4.1.Euskal Autonomi Erkidegoa. Marko legala

Azaltzera goazen marko legal hau aldatzeko asmoak daudela jakinda ere, momentuan idatzita dagoenaren arabera, 7/1990eko uztailaren 3ko Euskal Kultur Ondarearen legeak hirigune zaharretako lanak kontrolatzeko eta ikerketa lan baten premia dagoelarik, obra horiek kontrolatu eta kudeatzeko bideak eskaintzen ditu²³.

Kontuan hartu beharrekoa da baita ere, Foru Erregimenaren printzipioekin bat egiteak onura handiak dakartzala jarduerarako, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udaletxeen artean kompetentzia banaketa bermatzen baita, besteak beste. Azkenik, ondarea babestu eta garatzeko finantzazio formulak ezartzeaz gain, babestutako ondarearen mugak eta finantzaketa ere zabaldu ahal izan da.

4.2.EAeko hiribilduetako jarduera arkeologikoak

80. hamarkadaz gero Euskal Autonomi Erkidegoko hiribilduetan instituzioen bidez errehabilitazio, errehabilitazio eta errehabilitazio programak jarri ziren martxan. Alabaina, lehenengo interbentzioen emaitzak hiribilduen bilakaeraren jakintzarekiko hain arrakastatsuak ez zirela ikusirik, ikerketa arkeologikorako beste instrumentu batzuk sortzeari ekin zitzaion. Hiru izan ziren sortutako tresnak:


-Lurralde historikoen Ondare Arkeologikoaren Inbentarioa, ondare kulturalaren gestiorako tresna bat egon zedin eta testuingurutik kanpo eta antzu geratzen ziren jarduerari marko osatu bat eskaini zedin. Inbentario hori berrikusi eta gaurkotu egin da azken urte hauetan, momentuz Bizkaiari dagokionez.

-Hiribilduen ikerketa Historiko-Arkeologikoak, gune historiko horien azterketa xehakatu batera iristeko, lehenik gune horien ahalmen arkeologikoa neurtuz eta

²² Ibidem, 102-105 eta 324-327 orrialdeak.

²³ GIL ABAD, Dona, "10 urtetik gora hirigune historikoetan azterketa Historiko-Arkeologikoak egiten" in *Arkeoikuska*, 2002, 17-32 orrialdeak.

bigarrenik, hiri-fenomenoa eta haren bilakaera sakonki aztertuz (Donostian 1994ean egin zen).



1. Grafikoa: Ikerketa Historiko-Arkeologikoak.

1. Grafikoa²⁴ ikusten den bezala 1991 eta 2013 artean 27 ikerketa Historiko-Arkeologiko egin dira, Hirigune Historikoetako Eremu Arkeologikoetan. 14 Araban, 8 Bizkaian eta 5 Gipuzkoan²⁵. Beraz, ondoriozta genezake, hiribildu gehien dauden probintzia ikerketa gutxien egin direla, eta hiribildu gutxien daudenean azterketa gehien.

-Esku hartze Arkeologikoen proiektu puntualak²⁶.

Gipuzkoako inbentarioaren egitea bost urteren buruan amaitu zen²⁷ eta Erdi Aroan fundatutzat eman ziren gune kopurua 25ekoa izan zen, 19koa Araban eta 20koa Bizkaian.

²⁴GIL ABAD, Dona, "10 urtetik gora hirigune historikoetan azterketa Historiko-Arkeologikoak egiten" in *Arkeoikuska*, 2002, 17-32 orrialdeak.

²⁵Araba: Agurain, Labraza, Lagran, Antoñana, Añana, Santa Kurutze Kanpezu, Buradon Gatzaga, Artziniega, Bastida, Bernedo, Harana, Iruña-Oka, Urizaharra eta Biasteri; Bizkaia: Elorrio, Bermeo, Portugalete, Durango, Urduña, Otxandio, Balmasedako gaztelua eta Lekeitio; Gipuzkoa: Hondarribia, Oñati, Donostia, Segura eta Mutriku.

²⁶AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustin & GARCÍA CAMINO, Iñaki, "La Ciudad, Documento Histórico: Reflexiones sobre la práctica de la arqueología urbana en la Comunidad Autónoma del País Vasco" in *KOBIE*, XXIII Zk., Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1996, 141-161 orrialdeak.

4.2.1. Gipuzkoako hiribilduetako jarduerak arkeologikoak

Gipuzkoako hiribilduetan hainbat jarduerak arkeologikoak burutu dira azken urte hauetan eta arkeologiak ekarritako ekarpenak ere nabariak direla esan daiteke.



2. Grafikoa: Gipuzkoako Hiriguneetako Interbentzio Arkeologikoak (Iturria: Arkeoikuska).

Bigarren grafiko honetan Gipuzkoako hiribilduetan 1988tik 2013ra egin diren interbentzio arkeologikoak beha genitzake, Babeserako Programen eta Ikerketarako Programen barnean egin diren jarduerak bereizita, beti ere. Hartara, interbentzio gehienak Babes eta Kontserbaziorako Programen barnean egin direla ikusi genezake. Hauen ondoan urriak dira Ikerketa Programen barnean egindako jarduerak, batik bat, 2000. urtetik aurrera, nahiz eta, hasieran gehiengoak izan eta 90. hamarkadan zehar interbentzioen erdiak halakoak izan.

Egin diren jardueren ezaugarriak ikusi eta gero, goazen zehatzago gure herrietan aurkitu diren hiri-elementuak zeintzuk eta non izan diren ikustera eta honen bidez Arkeologiaren ekarpenak ezagutzera. Horretarako, gehien ikertu diren gunek hartu behar izango ditugu kontuan.

Arkeologiak agerian jarri duen aspektu bat hiribilduen jatorria eta sortze prozesu konplexua izan da. Hau da, hiribildu asko alde aurretik okupatutako gunetan sortu zela. Horrez gain, alde aurreko gunen horien kronologia eta izaera ere argitzen ere lagundu du. Alde aurreko gunen horietako batzuk erromatar garaikoak dira (Donostia, Hondarribia, Azkoitia, Getaria, Leintz -Gatzaga, Zarautz...) eta beste batzuk Goi Erdi

²⁷SARASOLA GOIENETXE, Nerea & MORAZA BAREA, Alfredo, *Erdi Aroko Arkeologia Gipuzkoan*. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2012, 181. orrialdea.

Arokoak (Azpeitia, Zumaia, Mutriku, Tolosa...). Hiribildu baten fundazioak, ordea, aurreko hiri bilbea aldatzea eragiten zuen²⁸.

Zarauzko hiribildua adibidetzat hartuz, Santa Maria la Real elizako dorrean 1997. urtean hasitako indusketa arkeologikoetan hainbat erreto aurkitu dira. Fase ezberdinak laburbilduz hau izan daiteke sekuentzia:

-Zarauzko elizaren inguruan eta barnealdean egindako indusketek, K.a. V. mendeko etxola baten, garai erromatarraren aurreko aztarnak identifikatu dituzte

-Horren gainean, baina garai horrekin jarraikortasuna hautsiz, asentamendu erromatar bat ezarri zen K.o. I-V. mendeen artean. K.o. V. menderako betekin homogeneo bat antzematen da.

-Hurrengo okupazio fasea, lau mendeetako hutsune baten ondoren, IX. mendean antzematen da. IX. mendeko datazioak eman zituzten zenbait hilobi eta gorpu agertu ziren, zeinak lehen eliza txiki baten presentzia egongo zela pentsatzera eramaten gaituen. Badirudi, ordea, nekropoli zahar honekin lotutako tenplu hau abandonatu egin zela (arrazoi naturalak edota Baionaren konpetentzia zela eta).

-Abandonu fase honen ondoren, X-XII. mendeen artean oinplano erregularreko bigarren eraikin bat eta aurrekoarekiko guztiz independentea eraiki zuen lur eremu berean eta komunitate ber berak.

-XIII. mendean hiri-nukleoaren hazkundearen ondorioz (hiribilduaren fundazioa 1237an eman zen), aurreko eliza eraitsi eta berri bat eraiki zuten. Eraikin honi lotutako nekropolia fosa sinpleetan enterratutako egiturek osatzen zuten.

-Egungo eliza gotikoa XV. mendearen amaieran eraiki zen Erdi Aroko Zarauzko asentamenduaren garapenaren harira²⁹.

Hiribilduetan egin diren interbentzio hauei esker tradizio historiografikoak horrenbesteko garrantzia eman izan dion aspektu batekin haustea ere ahalbideratu da. Aspektu hori, orubearena eta eratze-orube hori gune horien barruan irautearena izan da (Orube Gotiko deitua). Osagai horren barruan aldaketa handiak egon direla erakutsi ahal

²⁸Ibidem, 186. orrialdea.

²⁹IBAÑEZ ETXEBERRIA, Alex, *Entre menosca e Ipuscua Arqueología y Territorio en el yacimiento de Santa Maria la Real de Zarautz (Gipuzkoa)*, Zarauzko Udala, Zarautz, 2003, 14-29. orrialdeak.

izan da (atzera aurrera egiten duten fatxadak, hondamendiak, suteak, suntsiketak...). Bestetik, nahiz eta hirietako dolareen eredu konstruktibo gehienak XVIko baserridolareekin lotuak izan, esate baterako, haien logika konstruktiboak Erdi Aroraino eramane litzake eraikuntza horiek. Azkoitiko Plaza Berrian esaterako, datazioek XIII. mendeko arterainoko erabilera erakutsi zuten³⁰. Gainera, Erdi Aroan fundatutako gune ia den-denek dokumentatu dituzte beren perimetroetan harresi zatien zenbait ebidentzia.

Bestalde, badira, oraingoz harresien inongo ebidentziarik aurkitu gabeko herriak, Orio, Zarautz, Zumaia edo Deba, Bergara, Elgeta, Eibar eta Soraluez, besteak beste. Egoera hau bi azalpenen bidez uler daiteke, batetik, oraindik behar zen tokian ez dela interbentzio arkeologikorik egin edota hiribilduek ez zutela barruti harresiturik (alboko lurraldeetako beste adibide askotan egiaztatu den bezala)³¹.

Funtsezko beste osagai bat Atariak ziren eta hiri batzuetakoak kontserbatu badira ere (Arrasate, Zestoa, Hernani, Leintz-Gatzaga...), beste batzuetan hondakinak identifikatzea bakarrik lortu izan da (Donostia, Tolosa, Azkoitia...)³².

Perimetroa sendotzeko kasu batzuetan dorreak eraiki zituzten. Dokumentuetan harresiaren perimetroan ingurabide altxatuen presentzia aipatzen da (Arrasatekoan), baina Gipuzkoan ez da halako osagai defentsiborik aurkitu. Osagai berezien artean erretenak aipatzen dira, defentsa perimetroa inguratu eta sendotzeko eta elementu honen kasuan Azpeitian, Elgoibar, Urretxu edo Tolosan arkeologikoki dokumentatzea lortu da. Defentsaz gain, garbiketa eta ur zikinen tratamendua kudeatzeko, zabortege funtzioa ere bazuten erreten hauek.

Kronologikoki hiribilduak eta harresiak garai berean eraiki baziren ere, hiribilduaren sorrerak ez zekarren zuzenean haien eraikitzea, hau hamarkadatan luza baitzitekeen. Beren funtzioa bete zuten bitartean harresi haiek eboluzionatu egin zuten, berreraikiz edo erreformatuz, kasuak kasu. Askotan XIX. mendeko antolatze plangintza handien ondorioz desagerrarazi ziren behin betiko eta kontserbatu direnetan hiribilduaren aberastasunaren eta bertako elite gobernatzaileraren isla izan dira³³.

³⁰SARASOLA GOIENETXE, Nerea & MORAZA BAREA Alfredo, *Opus. Cit.* 192. orrialdea.

³¹Ibidem, 207. orrialdea.

³²Ibidem, 209. orrialdea.

³³Ibidem, 211. orrialdea.

5. Donostia Erdi Aroko hiribildua

5.1. Sarrera

Donostia Euskal Herriko Gipuzkoa probintziaren ipar ekialdean kokatzen den hiriburu eta udalerrri nagusia da. Kantauri Itsasoaren itsasertzean eratu zen hiria eta hiriaren Parte Zaharra Urgull Mendiaren magalean eta hiriaren iparraldearen erdigunean kokatzen da (Ikus 1. Eranskina). Forma laukizuzeneko auzoa da eta egun iparralde-hegoalde noranzkoa duten bost kale eta ekialde-mendebalde noranzkoa duten beste bost kalek osatzen dute. Auzoaren erdigunea baino zertxobait iparralderago eta ekialderago Konstituzio Plaza deituriko plaza nagusia kokatzen da. Urgull mendia iparraldean izanik, historikoki orografia hori aprobetxatu izan dute hiritarrek iparraldeko zatia harresirik gabe babesteko (Ikus 2. Eranskina).

Donostia Gipuzkoako lehen hiri foruduna izateaz gain (1180), mendeetan zehar hiri aberatsenetakoa eta jendetsuena ere izan zen³⁴. 1799. urtean, 10.500 biztanle bizi ziren Donostian, gehiena harresi barruko eremuan, hots, egungo Alde Zaharrean eta gainontzekoa, inguruko auzoetan³⁵. 1813. urteko setio eta hondamendiaren ostean populazioa asko jaitsi zen, batik bat, harresi barruko eremuan eta 3.000 biztanletan geratu zen hiribildua (egun 6.000 biztanle baino gehixeago ditu³⁶).

5.2. Hiri Arkeologia Donostian


Donostiako kasuan ere, Euskal Kultur Ondareari buruzko legeak ondorio zenbait ekarri zituen eta Donostiako Gune Arkeologikoa Monumentu Multzoaren kategoriaz Kultur Ondasun izendatu eta Euskal Kultur Ondarearen Inbentario Orokorrean sartu baitzen 1996ko otsailaren 29ko Aginduaren bidez³⁷. Hemendik aurrera, Kasko Historikoan eginiko jarduera arkeologikoak biderkatu egin ziren, gehienbat egin beharreko obrei lotuta, hau da, prebentzio arkeologiari lotuta.

³⁴ AYERBE IRIZAR, Miren & FERNANDEZ ANTUÑA C.M., *Opus Cit.*, 68. orrialdea.

³⁵ PI CHEVROT José Javier, *Donostia. 1813 urteko hondamendiaren aurreko Donostia gogoratu*, Jose Javier Pi Chevrot, 2015.


³⁶ http://www.donostia.eus/info/ciudadano/part_barrios.nsf/voWebContenidosId/D1B4333AC41D0E21C1257A2F002B52CC?OpenDocument&idioma=eus&id=A608306614310&cat=&doc=D (15/05/31)

³⁷ http://www.kultura.ejgv.euskadi.eus/r46-4874/es/contenidos/informacion/publicaciones_centro/es_6276/descarga.html (2001, 451. orrialdea)



3. Grafikoa: Donostia Hiribilduko Jarduera Arkeologikoak (Iturria: Arkeoikuska).

Hirugarren grafiko honetan ageri den eta aurrez esan dugun bezala, Donostiako Hiribilduan egin diren esku-hartze arkeologiko gehienak Babeserako Programen barruan egin dira. Gainera, deigarria da 2005. urtetik aurrera martxan jarritako interbentzio kantitatearen jaitsiera, aipatutako urtean 2010.ean bat bera ere burutu ez zen bezala. Hau, noski, orain zortzi bat urte sortutako krisi ekonomikoaren ondorio zuzena litzatekeela ondoriozta genezake. Esku hartze gehien burututako aldia, berriz, 1997 eta 2001. urteen artean kokatuko litzateke, urtero lau esku-hartze egin baitziren.



4. Grafikoa: Donostia Hiribilduko Interbentzio Motak (Iturria: Arkeoikuska).

Beste grafiko honetan, bestalde, interbentzio arkeologiko gehienak obren kontrolen barruan egin direla ikusi daiteke. Hiribildu honetan egindako indusketak ere ez dira urriak eta miaketa eta zundaketa zenbait egin direla ere beha genezake.

Azkenik, beheko mapan³⁸ interbentzio arkeologikoak egin diren tokiak ikus daitezke. Ikusten den bezala, ez dago kontzentrazio nabarmenik toki batean ala beste batean, eta beraz, alde zahar guztian barreiatua dago ikerkuntza arkeologikoa.



1.Mapa: Interbentzio Arkeologikoak egin diren orubeak (Iturria: Arkeoikuska).

5.3. Atzemandako hiriaren eraikuntza faseak

5.3.1. Hiribilduaren Fundazioa baino lehen

Egungo Donostiako Kasko Historikoan izan ez baldin bazen ere, Antiguu auzoan Historiaurreko zenbait asentamendu egon zirela esan daiteke³⁹. Erromatarren garaian Kontxako badian benetako portu bat egon zenaren hipotesia plazaratu zuen J.L Banúsek. Horrez gain, erromatarren asentamenduko I. Fasea egungo hiribilduko Kanpandegi, Fermin Calbeton eta San Jeronimo kaleetan kokatzen zela esaten du eta II. Fasean ekialderantz zabaldu zirela, hots, egungo Narrika Kalearen alderantz. Arrasto erromatar urriek, baina, ez dute erromatarrek Donostian egokitu zirela baieztatzeko funtsik ez eta finkamendu hipotetiko haren izaeraz ezer adierazten.

Gerora, 1180 urterako aurreko gunean oinarriturik sortu zen hiria abiapuntutzat hartzen badugu, gutxienez bi erlijio gune egongo ziren eta Goi Erdi Aroko gaztelu bat

³⁸[https://www.google.es/maps/place/Donostia,+Gipuzkoa/@43.3235826,-1.9866395,878m/data=!3m1!1e3!4m2!3m1!1s0xd51affe3b68fe15:0xe43ec55994864649\(2015/06/5\)](https://www.google.es/maps/place/Donostia,+Gipuzkoa/@43.3235826,-1.9866395,878m/data=!3m1!1e3!4m2!3m1!1s0xd51affe3b68fe15:0xe43ec55994864649(2015/06/5))

³⁹http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=5174&cid=3&Itemid=68&lang=eu

ere bazegoen Urgull mendiaren gainean⁴⁰. Gune horietako bat egungo Antigua auzoan zegoen San Sebastian monasterioak osatzen zuen (egun Miramar Jauregia)⁴¹.

5.3.2.Fundazio aldia: Erdi Aroa, XII-XV. mendeak

Topografikoki ezberdina zen, hiribilduko orduko plaza eta kaleak ez baitzeuden gaur egungoen maila berean. Izan ere, Santa Teresa Komentutik Ijentea Kaleraino egun baino 4-5 metro gorago zegoen hiria, muino baten gainean ezarria. Hirigunearen ekialdea, berriz, 4 metro baxuago zegoen eta Puyo Kaleak esaterako (egun Fermin Calbeton) malda nabarmena zuen, *Puyo alto* eta *Puyo bajo* ezberdintzen zirelarik. Kale honen kasuan, egin diren indusketa arkeologikoek 17. orubeko eraikuntza egituretan, esaterako, 1813 aurreko aztarnak ikusiz maldaren ezaugarria ziurtatu ahal izan dute⁴². Honekin loturik, hasierako hiria zati altuenetan kokatu zen, Ijentea Kalean hasi, Santa Teresa Komentutik pasa eta San Telmo Komenturainoko arkuak osatuz. Kale nagusi bakarra Trinitate Kalea izango zen (egun Abuztuak 31). Arku horretan kokatzen diren Koruko Ama Kalean eta Elvira Zipitria Kale inguruan Santa Teresa komentuko Erdi Aroko Nekropoliak eta XIV. mendeko hartxabalezko hilobiak aurkitu ziren 2009. urtean egindako indusketa arkeologiko batean⁴³.

Harresia eraikitzeke obrak hiria sortu orduko hasi ohi ziren, badirudi ordea, oso gutxitan amaitu zirela guztiz. Donostiako kasuan, kostako hiria izanik eta etengabe erasoak pairatuko zituenez, etengabe konponduko behar izan zuten harresia⁴⁴. Erdi Aroko Donostiaren mendebaldeko harresia, egungo Kanpandorre Kalearen ekialdeko ertzean eraikia zegoen (Ikus 5. Eranskina) eta muinoaren goiko zatia betetzen zuten hormak eta dorreek. Horma honetatik badiarantz, anfiteatro moduan arrantzale eta itsasgizonak bizi ziren hiriko harresiz kanpoko lehen errebala eratu zen.

Hiraren ekialdean, bestalde, 1989ko azarotik 1990eko otsailera egindako indusketa arkeologiko batean ere, orduan, ekialdetik itxiko zuen harresiaren arrastoak aurkitu ziren. 1993.ean Sarriegi Plazan eta Narrika Kalean aurkitu ziren harresi zaharraren zatiak.

⁴⁰ AYERBE IRIZAR, Miren & FERNANDEZ ANTUÑA C.M., *Opus Cit*, 82. orrialdea.

⁴¹PI CHEVROT José Javier, *Opus. Cit.*.

⁴²AYERBE IRIZAR, Miren, "Fermin Calbeton kalea, 17 (Donostia-San Sebastian)" in *Arkeoikuska*, Eusko Jaurlaritza, 1999, 197. orrialdea.

⁴³AURREKOETXEA FERNANDEZ, Unai, "Koruko Ama eta Andereño Elbira Zipitria kaleen ingurua" in *Arkeoikuska*, Eusko Jaurlaritza, 2009, 351-352 orrialdeak.

⁴⁴AYERBE IRIZAR, Miren & FERNANDEZ ANTUÑA C.M., *Opus. Cit.*, 81. orrialdea.



Ondoko irudi honetan beha genezaken bezala, XII. mendean eraikitzen hasi zen Harresi Zaharra Kanpandegi Kaletik, Embletran Kaletik eta San Juan Kaletik pasatzen zen.

2.Mapa: Harresi Zaharraren trazatu hipotetikoa.

Harresi Zaharraren ateetako bat, hegoaldekoa hain zuzen, Embeltran Kaleko 3. orubean eta Bulebarraren artean zegoela jakina da, eraikin batzuetan hondakin arkeologikoak aurkitu baitira⁴⁵. 1994 urtean, bestalde, San Jeronimo kalean ere, Erdi Aroko harresian zabaldutako atearen egiturak aurkitu ziren.

Modu berean, Esterlines Kaleko 12. eraikinean (Fermin Calbeton, 25) ere (1847an Colladotarren Jauregia eraiki zen) sutearen aurreko harategiaren, arrandegiaren eta harresiaren aztarnak aurkitu ziren 1992. urteko kontrol arkeologiko batean.

XIV. mende erdialdera arte zurez eraiki ziren etxe gehienak. Etxe barruetan koipea, lastoa eta alkaterna bezalako gai erregarriak erabili ohi ziren, eta sua hartzeko zuten arrisku handia zela medio, mehelin-hormak, harriz eraikitzeko obligazioa ezarri zen. Arizagaren arabera, hiri gehienetan izan ziren sute handiak, baina Donostia izan zen “suak maizenik suntsitu zuen hiria”⁴⁶, XIII eta XVI. mende artean bederatzi aldiz erre baitzen hiria arrazoi ezberdinengatik. XIV. mende bukaeratik aurrera harrizko etxe batzuk eraikitzen hasi ziren familia aberatsentzat, hots, dorretxeak.

Bestalde, hiriaren ekialdean egindako indusketei esker, Behe Erdi Aroko etxebizitzak, Errementerien plaza eta errementegia aurkitu ziren egungo Zuloaga plazan⁴⁷.

Harresiz kanpo, La Antiguako San Sebastian komentua zegoen, gaur egun Miramar Jauregia dagoen lekuan. Bestalde, San Bartolomeko Agustinen komentuak, toki estrategikoan zegoenak, hiriko sarrera adierazten zuen, Donostia probintziarekin lotzen

⁴⁵ AYERBE IRIZAR, Miren, “Embeltran kalea, 3 (Donostia)”, in *Arkeoikuska*, Eusko Jaurlaritza, 1996, 285-288 orrialdeak.

⁴⁶ AYERBE IRIZAR, Miren & FERNANDEZ ANTUÑA C.M., *Opus. Cit.*, 83. orrialdea.

⁴⁷ SAGARZAZU ANDUEZA, Iñaki, “Ignacio Zuluaga Plaza (Donostia)” in *Arkeoikuska*, Eusko Jaurlaritza, 1989, 171-173 orrialdeak.

zuen bide bakarrean (Hernaniko bidean) kokatzen baitzen. Errepidearen hasieran San Martin errebela eratu zen. Hirugarrenez, Egiako muinoan San Francisco komentua kokatzen zen, Santa Katalina zubiaren bidez lotzen zen hiriarekin, Santa Katalina errebalaren ondoren. Azkeneko honetan bere antzinakotasuna frogatu ahal izan da 2008ko indusketa arkeologiko batean XIV. mendeko hezurak aurkitu ondoren.

Alderdi Ederren ere, hainbat aztarna aurkitu dira, harrizko putzu bat, enbor zati handiak, oin zirkularreko egiturak etab. eta aparkaleku barruan ere XIV. mende erdialdetik XVI. mende hasierara arteko hamabi poste inguru aurkitu ziren, untxiolak harresitik kanpoko hareatzetan ezartzen zirenen seinale. Eremu hau Erdi Aroan harresiaren kanpoko aldea zen heinean ureratu eta konpontzeko ontziak eduki ohi zituzten bertan, horrekin batera, zurezko eraikinak eta arrainaren kontserbaziorako eraikinak ere identifikatu ziren 1997ko indusketa arkeologikoetan, besteak beste.

5.3.3. Aro Berria: XVI-XVIII. mendeak

Erdi Aroko harresiak bere funtzioa galdu zuen bai mendebaldean eta baita hegoaldean ere, eta defentsarako harresi berri bat eraikitzeari ekiteaz batera, haren gainean etxeak egokitzeari ekin zitzaion. Honen harira, 1471ko Kontzejuan, bizilagun batzuei harresi zaharraren zati batzuk eman zitzaizkien horma haiekin euren etxeak edifika zitzaizkien. Hegoaldean zabalgunea eratzeko proiektua ere martxan jarri zen⁴⁸.

Hegoaldean XVI. mendean harresi zaharra bota eta harresi berria eraikitzearekin batera hiriaren hegoaldean zitadela bat eraiki zen Aro Berriko armagintza modernoaren aurrean hobekiago defendatzeko (Ikus 3 eta 4. Eranskinak). Gotorleku baluartedun honen lekuko dira, hirian egindako indusketa arkeologikoetan aurkitutako XVI. mendeko Kubo Inperialaren eraikuntza aztarnak (1997), Santiago Baluartearen aztarnak (1997), Labeen Kuboaren aztarnak, zeinak kanoientzako XVI. mendeko hiru kanoi zulo dituen (1998), San Felipe baluarteko kontra-goardia, lubanarroa, bide babestua, arma plaza, alboetako babes egiturak eta biderako zubiaren puska finko bat (1997), besteak beste. Harresi-esparru berri hau eraiki ondoren, Erdi Aroko murrak lehengo babes-funtzioa galdu zuen eta inguru hartako etxe partikularrek euren etxe-egiturak sendotzeko harresi zaharraz baliatu ziren, iparralde, hegoalde eta mendebaldeko frontean bereziki. Aldaketa hauetako bat begi bistakoa da, baita ere, Bulebarreko

⁴⁸BENGOETXEA REMENTERÍA, María Belén “Arqueología de las Murallas Urbanas Medievales en el País Vasco. Nuevas vías interpretativas” in *VELEIA*, 24-25, 2007-2008, 1153-1154. orrialdea.

Zumardiko 16. orubeko sotoan eta behe oinean, kasuak kasu. Mari Kalean ere, suntsiketa honetako zenbait eraikuntza-egitura aurkitu ziren 1999an burututako indusketa arkeologiko batean. Urte berebean, Koruko Ama Kalean harresi Berriaren barruko altxaerari lotutako egitura hustu bat ere aurkitu zen.

Ekialdeko San Juan Kaleko 6. orubean ere harresi modernoaren egitura hondakin batzuk aurkitu ziren 1995. urteko indusketa arkeologiko batean eta honen azpian baita, beste harresi egitura batzuk ere. Zuloaga Plazan San Telmo Komentuko zenbait dependentzia, harresi berria eta ehorts-lekuak aurkitu ziren. Komentuko dependentziak Artilleriako Kuartel gisa erabili zen gerora. Komentua eta harresi berria hirialdea zabaldu eta defentsa hobetze aldera egin ziren. Harresi berriak 25m luze, 2,40m zabal eta 7mko altuera zituen eta San Juan kaletik Aldamar kaleraino luzatzen zen⁴⁹.

Nahiz eta harresia eraitsi, XII. mendeko harresi zaharraren dorre bat mantendu egin zen, Santa Maria elizaren XIII edo XIV. mendeko eliza gotikoaren kanpandorra ere izateaz gain, hirira sartzeko ateetako bat ere izan baitzen⁵⁰. Kanpandorrearen edo Okendo Dorretxearen gaur egungo aztarna urriak, egungo Gaztelubide sozietatearen horman antzeman daitezke (Ikus 4. Irudia). Kanpandorrera eramaten zuen Kanpandorre Kalea, kale aldapatsu eta estua zen eta hiritik Gaztelura igotzeko sarbide bakarra zen.

Funtzio aldaketa honek ordura arte harresiz kanpo geratzen ziren lur batzuk harresiaren barruan geratzea eragin zuen, aurreko fasean, harresi zaharraren mendebaldeko itsasertzeko kanpoaldean eratu zen errebala, esate baterako. Horrez gain, hirian lehen “zabaldiak” bideratu ziren, ekialdeko eta hegoaldeko fronteetan eta zabaldi berri horietan tailer moduko munta txikiko eraikinak, baratzak, dendak, ostatuak, zalditegiak... eraiki ziren. Geroago etxeak eraiki ziren, karez eta harriz eta plazak eta kaleak antolatu ziren.

XVIII. mendean, Kale Nagusiaren eta sarrerako atearen artean harresi zaharra eraitsiz kurba bat ireki zen, Plaza Zaharra izenekoa sortzeko. Plaza hau egungo Bulebarreko arkupetan zegoen, Kale Nagusiaren eta San Jeronimo kalearen bokalean eta hiriarri Kubo Inperialaren albo batetik sarrera egiten zion Lehorreko Atearen ondoan⁵¹.

⁴⁹SAGARZAZU ANDUEZA, Iñaki, *Opus. Cit.*

⁵⁰PI CHEVROT José Javier, *Opus. Cit.*

⁵¹AYERBE IRIZAR, Miren & FERNANDEZ ANTUÑA C.M., *Opus. Cit.*, 90. orrialdea.

Plaza Berria (Konstituzio Plaza) 1722an eraiki zen eta Plaza Zaharra ez bezala, erregulartasunean eta ordenan oinarritu zen Ercole Torrelari arkitektoa. Santa Maria eliza ere oinarri fin eta dotoreekin eraiki zen, hutsune, argi eta arkupe neoklasikoetan oinarrituz. Jesuiten ikastetxea berriz, San Jeronimo Kalearen parean eraiki zen 1627an⁵².

1813ra arte, Trinitate Kaleak (abuztuaren 31) erlijio izaera izan zuela esan genezake, nahiz eta, hiriko familia noble batzuen jauregiak ere kale hartan kokatzen ziren. Kale Nagusiak eta merkataritzarako trafiko handiena zutenak, San Jeronimo, NARRIKA, PUYO (Fermin Calbeton) eta Kale Nagusia bera ziren. Plaza Zaharra ere espazio bizia zen, Lehorreko Atea igaro ondoko lehen ikuspegia baitzen eta Plaza Berrian (Konstituzio Plaza) feriak, ikuskizunak, zezenketak eta jai publikoak egin ohi ziren⁵³.

Harresiz kanpoko esparrua portukoa zen eta honi dagokionean bai Hegoaldeko Kaiari eta baita Kaiarriba Kaiari ere, Aro Berriko hondakinez gain Erdi Arokoak ere aurkitu izan dira indusketa arkeologikoetan.

5.3.4. Donostiaren azken bilakaera

Fase honetan gertakaririk garrantzitsuena 1813. urteko suntsiketa izan zen eta honek gerora egin diren ikerketa arkeologikoak burutzeko zailtasunak eragin zituen, urte horretan Abuztuak 31 kalearen iparraldeko 35 edo 40 etxe, Zurriolako etxe batzuk eta beste gutxi batzuk bakarrik mantendu baitziren. Mehelin eta fatxadetatik ere batzuek bakarrik iraun zuten (Ikus 7 eta 8. Eranskinak). Honen ondoren, aldaketa puntual batzuk egin ziren hiri berrian⁵⁴ nibelazioa eta uniformizazioa, lortzearen.



3.Irudia: Egungo Harresian dagoen kanoi-zuloa.

⁵² PI CHEVROT José Javier, *Opus. Cit.*.

⁵³ AYERBE IRIZAR, Miren & FERNANDEZ ANTUÑA C.M., *Opus. Cit.*, 93-94. orrialdeak.

⁵⁴ Ibidem, 95-96 orrialdeak.

Suntsitutako hiriaren elementu garrantzitsuetako bat Kanpandorra izan zen. Trinitate Kalea eta Kanpandorre Kalea elkartzen ziren tokian kokatzen zen. Portuaren, itsasoaren, muinoaren, mendiaren eta hiriaren arteko benetako erroa zen kanpandorra. XIII. edo XIV. mendean eraiki zen eta denbora sozialaren erregulatzailerik garrantzitsua izan zen, hiriaren Erdi Aroko ikono bat izatearekin batera. Harresi barneko hiriaren nibelazioa zela eta, eraitsi zen 1817. urtean. Egun Gaztelubide den eraikinean bada oraindik Kanpandorrearen azken existentziaren azken testigu bat, hots, horma antzeman daitekeen arrakala bertikala.



4.Irudia: Gaztelubideren eraikina.

Beraz, Erdi Aroko hiriaren lau aztarna nagusi ikusgai ditugu oraindik egungo Donostian: Batetik, Gaztelubideko Kanpandorre zaharreko arrastoa, bestetik Kanpandorre Kalearen gainetik pasatzen den zubia (Ikus 9. Eranskina) eta, azkenik, San Bartolome Kalearen erdialdean zegoen bidearen hasiera, zeina Hernanirako, Probintziarako eta Madrilerako errepidea zen.

6.Ondorioak

6.1. Emaitzak eta ekarpenak

Iturri idatziek, askotan ikonografiarekin konbinatuz, jabetzen, aspektu legalen, politiko, ekonomikoen... inguruko informazioa ematen dute, baina topografiaz, dietaz, artisautza teknikez edota elkartruke-sareen inguruko informaziorik ez dute ematen, eta hori guztia jakiteko hiriaren beraren ikerketa beharrezkoa da⁵⁵. Horregatik, Hiriaren Arkeologiak egindako ekarpenak, Erdi Aroko hirigintzaren ezagupenari dagokionean ez dira hutsalak izan.

Donostiari dagokionean, batetik, tradizio orubearen faltasutasuna agerian jarri zen, hasierako hiria mendebaldeko eta iparraldeko muinoetan ezarri zela ziurtatuz. Honen harira, topografian eman ziren aldaketak eta malda eta plazen gora beheren

⁵⁵ QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio & BONGOETXEA REMENTERIA María Belén., *Arqueología III...*, *Opus. Cit.*,377. orrialdea.

nondik norakoak material arkeologikoz zehaztu ahal izan ziren. Gainera XI-XII mende inguruko hiriaren morfologia ere zertxobait ezagutu ahal izan zen. Izan ere, iturri idatziek 1180. urtean forma karratuko harresia, angelu bakoitzean dorre bana zuena, zegoela esaten diguten bitartean, indusketa arkeologikoen bidez kareaz eta harriz eginiko hesi bat existitzen zela jakitea lortu da. Horrez gain, hiri barnean zuzeko etxebizitzak eta zenbait jardueren berri jaso da. Bestalde, 1278. urtean jazo zen sutearen ondorioz erretarako zenbati material arkeologiko ere identifikatu ahal izan dira, gertaerak bermatuz.

Gainera, atari eta harresien kokapen eta ezaugarri zehatzaren berri ere jakitea lortu da estratigrafiaren bidez. Aldi berean, harresi zaharraren funtzio aldaketak eta harresi berriaren suntsitze eta berreraikitzeak identifikatu ahal izan dira. Honez gain, hiriko dorretxe nagusien datazio zehatzak ere lortu ahal izan dira eta horren garrantzitsua izan zen Kanpandorrearen aztarnak ere identifikatzea lortu da. Gainera, zundaketa arkeologikoen bidez interes arkeologikoa duten eremu zehatz batzuk ukitzen dituzten obren jarraipen arkeologikoa bideratu ahal izan da, hala nola, Collado jauregi zaharrean eginiko kontrol eta zundaketa arkeologikoak, zeinak Erdi Aroko Arrandegi eta Harategi kale zaharrei dagozkien egitura-aztarnak atzematea ahalbideratu baitzuen. Harresi Zaharraren suntsitzearekin batera, espazio berri horietan eraikitako zabalgunek eta eremu bakoitzari emandako espazioaren funtzioa identifikatzea ere lortu da (tailerrak, ostatuak, dendak...) eta hiri barnean ematen zen espazio-banaketa ere arkeologia-metodoen bitartez ezagutzea ahalbideratu da (erlijio izaerako espazioa, merkataritza-kaleak, aisiarako eremuak...).

Amaitzeko, aurrez azaldu bezala Hiriaren Arkeologia ez den soilik hirian egindako arkeologia, baizik eta hiria eta baita hiriaren inguru espaziala ere, harresiko mugetatik kanpo eratutako errepideak, auzoak, monasterioak, untziolen-eremuak... ere identifikatu ahal izan dira, horrela.

Lortutako informazioa gizarteratzeari dagokionean, baina, ez da hiriaren bilakaeraren azalpen orokorrik eskaini. Indusketa puntualen berri eman izan baldin bada ere, 1989-1990ko indusketetan argazki erreportaje, plano, txostenen antzera, esaterako, eta Arkeoikuska aldizkariak 1981. urtetik aurrera egin diren jarduerak oro biltzen baditu ere, 1995. urtean publikatu zen Donostiako Parte Zaharreko Azterketa Historiko-

Arkeologikoa kenduta ez da hiriaren hirigintzari buruzko ezagutza zabaltzeko lanketa globalik egin.

6.2. Euskal Herriko Hiri Arkeologiaren egoera

Euskal Herriko Hiri Arkeologiaren egoerari dagokionean, orain arteko interbentzio arkeologikoak ugariak izan baldin badira ere, Arkeologia honen arazo handiena, aurkitutako material arkeologikoa Historiaren ezagutza zikloan ez txertatzean datza. Arazo honi aurre egiteko, Rodríguez Temiñok Penintsularen egoerarako planteatzen duen soluzio ber bera aplikatu beharko litzatekeela iruditzen zait, hots, ikerketa zientifikoak proiektu definitu batekin egitea: eta gero aurkitutako material arkeologikoa analizatu, kontserbatu eta emaitzak hedatzea⁵⁶. Izan ere, Arkeoikuskan aurkezten diren laburpen laburrek baino ez dute euskal probintzietako Hiri Arkeologiaren jardueren berri ematen⁵⁷.

Quirós eta Bengoetxearen arabera ere⁵⁸, urriak dira publikatutako eta hiriaren nondik norakoa ulertzeko erabili diren ekarpenak eta hau hala izanik, ez da erraza hiriaren garapena arkeologiaren bidez ezagutzea, batetik, sintesi faltagatik eta bestetik, ikerketa globalak burutzeko programa gabeziagatik⁵⁹.

Bestalde, Europa mailan jazotzen den bezala, Hiri Arkeologia lantzen den programa didaktikoak oso urriak dira egun unibertsitateetan⁶⁰, honek guztiak dakarren kaltearekin. Aipagarria da baita ere, hiri-arkeologiak hezkuntza programetan duen eragin ezberdina, Bulgaria, Kroazia, Grezia, Herbehereak eta Ipar Irlandaren kasuan, arkeologiak hezkuntzan izan dezakeen ekarpenaren alde lan egin duten bitartean, beste lurralde batzuetan, Txekiar Errepublika, Frantzia, Errumania eta baita Euskal Herrian bezala ere, hezkuntza programetan izandako eragina txikia izan baita.

Hala eta guztiz ere, azken urteetan aldaketa handiak eman dira, instituzioen aldetik ondare kulturalaren inguruan. Eusko Jaurlaritzak, Aldundiek naiz udaletxeek, sentsibilitate kolektibora hurbiltzeko konpromisoa hartu dute eta honen adierazle, dira

⁵⁶ RODRÍGUEZ TEMIÑO Ignacio, *Opus Cit.*, 18. orrialdea.

⁵⁷ BONGOETXEA REMENTERÍA, María Belén, “Arqueología de las Murallas...”, 1145. orrialdea.

⁵⁸ QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio. & BONGOETXEA REMENTERIA María Belén., *Arqueología III...*, *Opus. Cit.*, 380. orrialdea.

⁵⁹ Hala eta guztiz ere, badaude hiriaren ikerketaren adibide aipagarriak ere, eta horietako bat Gasteiz hiriri buruz argitaratutako *Arqueología e Historia de una Ciudad. Los Orígenes de Vitoria Gasteiz (I), (II)* liburukiak izango lirateke, hiribilduaren bilakaeraren azalpen globala eskaintzen baita bertan.

⁶⁰ QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio, “¿Excavar en las...” *Opus. Cit.*, 110. orrialdea.

Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorra (1996an) eta hauen barruan EAEko hirietako zentro Historikoetako Gune Arkeologiko gehienak Monumentu Multzoen barruan Interes Kulturalaren Ondare izendatu eta beraz, babestea. Hala eta guztiz ere, eta nahiz eta salbuespenak egon, Ondare Arkeologikoa gizarteratu eta hedatzeko lana sustatzea funtsezkoa da. Gainera, egun nozitzen dugun krisi ekonomikoak inposatutako baldintzak direla eta, interbentzio arkeologiko urrien aurrean, arkeologo eta historialariek hartu beharreko ezinbesteko jarreratzat ikusten dut nik, orain arteko informazio eta datu guztiak bildu eta dibulgazio-lanen bidez arkeologiak eskainitako Erdi Aroko euskal Hiribilduei buruzko ezagutza zabaltzea.

7. Bibliografia:

AA, Report on the Situation of Urban Archaeology in Europe, Council of Europe Publishing, Germany, 2001.

ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz & MARTÍNEZ MARTÍNEZ, Sergio, Atlas de villas Medievales de vasconia. BIZKAIA, Donostia, Eusko Ikaskuntza, 2006.

ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz, El Nacimiento de las Villas Guipuzcoanas en los siglos XIII-XIV: Morfología y funciones urbanas, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, Donostia, 1978.

ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz, Gipuzkoako Hiri Zaharrak, Bertan, Donostia, 1994.

ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz “La arquitectura popular en la Edad Media (Guipúzcoa)” in Revista de la Facultad de Geografía e Historia, 4. ZK., 1989, 59-74 orrialdeak.

ARIZAGA BOLUMBURU, Beatriz, Urbanística Medieval: Gipuzkoa, Kriselu, Donostia, 1990.

AURREKOETXEA FERNANDEZ, Unai, “Koruko Ama eta Andereño Elbira Zipitria kaleen ingurua” in Arkeoikuska, Eusko Jaurlaritza, 2009, 351-352 orrialdeak.

AYERBE IRIZAR, Miren & FERNANDEZ ANTUÑA C.M., “Donostiako Gune Historikoaren Azterketa Historiko-Arkeologikoa” in Arkeoikuska, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1995, 68-97 orrialdeak.

AYERBE IRIZAR, Miren, “Embeltran kalea, 3 (Donostia)”, in Arkeoikuska, Eusko Jaurlaritza, 1996, 285-288 orrialdeak.

AYERBE IRIZAR, Miren, “Fermin Calbeton kalea, 17 (Donostia-San Sebastian)” in Arkeoikuska, Eusko Jaurlaritza, 1999, 197. orrialdea.

AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustin & SOLAUN BUSTINZA, Jose Luis, Arqueología e Historia de una Ciudad. Los Orígenes de Vitoria Gasteiz (I), (II), Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 2013.

AZKARATE GARAI-OLAUN, Agustin & GARCÍA CAMINO, Iñaki, “La Ciudad, Documento Histórico: Reflexiones sobre la práctica de la arqueología urbana en la Comunidad Autónoma del País Vasco” in KOBIE, XXIII Zk., Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo, 1996, 141-161 orrialdeak.

BENGOETXEA REMENTERÍA, María Belén “Arqueología de las Murallas Urbanas Medievales en el País Vasco. Nuevas vías interpretativas” in VELEIA, 24-25, 2007-2008, 1143-1159 orrialdeak.

BENGOETXEA REMENTERÍA, María Belén “Hiri-Arkeologia Euskal Herrian. Definizioa, eztabaida eta problematikak” in Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak, Kintana Goiriena, Jurgi eta Artetxe Sánchez, Karmele (arg.), Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 2002, 61-75 orrialdeak.

FRANCOVICH RICCARDO & MANACORDA DANIELE (Edt.), Diccionario de Arqueología, Crítica, Bartzelona, 2001.

GIL ABAD, Dona, “10 urtetik gora hirigune historikoetan azterketa Historiko-Arkeologikoak egiten” in Arkeoikuska, 2002, 17-32 orrialdeak.

IBAÑEZ ETXEBERRIA, Alex, Entre menosca e Ipuscua Arqueología y Territorio en el yacimiento de Santa Maria la Real de Zarautz (Gipuzkoa), Zarauzko Udala, Zarautz, 2003.

PI CHEVROT José Javier, Donostia. 1813 urteko hondamendiaren aurreko Donostia gogoratzuz, Jose Javier Pi Chevrot, 2015.

QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio, “¿Excavar en las Ciudades o Historiar las Ciudades? El Debate sobre la Arqueología urbana a la luz de algunas experiencias” in AyTM 12.1, 2005, 107-132. orrialdeak.

QUIRÓS CASTILLO Juan Antonio & BENGOETXEA REMENTERÍA María Belén, Arqueología III. Arqueología Medieval y Posmedieval, UNED, Madrid, 2010.

QUIRÓS CASTILLO, Juan Antonio & BENGOETXEA REMENTERÍA, María Belén, “Las villas vascas antes de las villas: La perspectiva arqueológica sobre la génesis de las villas en el País Vasco.” in El espacio urbano en la Europa Medieval: Nájera. Encuentros Internacionales del Medioevo, Solórzano Telechea, Jesús Ángel & Arizaga Bolumburu Beatriz (Koord.), Nájera, 2005, 146-166 orrialdeak.

RODRÍGUEZ TEMIÑO Ignacio, Arqueología Urbana en España, Ariel Patrimonio, Bartzelona, 2004.

SAGARZAZU ANDUEZA, Iñaki, “Ignacio Zuluaga Plaza (Donostia)” in Arkeoikuska, Eusko Jaurlaritzza, 1989, 171-173 orrialdeak.

SARASOLA GOIENETXE, Nerea & MORAZA BAREA, Alfredo, Erdi Aroko Arkeologia Gipuzkoan. Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 2012.

ARKEOIKUSKA URTEROKO ALDIZKARIA (2015/06/14)

<http://www.hiribilduak.net/hiribilduak.html> (2015/05/21)

http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=65&Itemid=68 (2015/5/23)

http://www.santelmomuseoa.com/index.php?option=com_flexicontent&view=items&id=5174&cid=3&Itemid=68&lang=eu (2015/04/21)

<https://www.google.es/maps/place/Donostia,+Gipuzkoa/@43.3235826,-1.9866395,878m/data=!3m1!1e3!4m2!3m1!1s0xd51affe3b68fe15:0xe43ec55994864649>(2015/06/5)

Donostiako Udal Agiritegia


8.Eranskinak:




- 1. Eranskina. 1. Mapa:** Gaur egungo Donostiako auzoak. Iparraldeko Parte Zaharrean kokatzen da Gune Arkeologikoa (Iturria: www.donostia.eus).



- 2.Eranskina. 2. Mapa:** Donostiako gune esanguratsuenak erakusten dituen mapa (Iturria: Googlemaps).



3. Eranskina. 3. Mapa: Aro Berriko Donostiako hiriaren plano (Iturria: Donostiako Udal Agiritegia).



4. Eranskina. 4. Mapa: Aro Berriko harresi modernoa eta hiriaren trazatua, egungoaren gainean (Iturria: Donostiako Udal Agiritegia).



5. Eranskina. 1. Irudia: Kanpandegi Kaleren egungo ikuspegia. Kale honen ekialdean kokatzen zen Erdi Aroko harresi zaharra, Nafarroako Erregeak XII. mendean eraikiarazi zuena.

6. Eranskina. 2. Irudia: Harresi modernoa gaur egun. XV. menderako eraikia zegoen, baina gerora, hainbatetan eraitsia eta berreraikia izan da. Aro Berrian hirigunera sartzeko erabiltzen zen erdi-puntuko atea itxita, gezi-leihoak eta kanoi-zuloak ikus daitezke, besteak beste.





7. eta 8. Eranskinak. 3. eta 4. Irudiak: 1813. urteko sutean mantendu ziren, 42-44 eraikinak. Egun Donostiako zaharrenak izango lirateke eta Erdi Aroan eta Aro Berrian egitura honetako etxebizitzak izango ziren ugariak. Bi etheen artean suarengandik babesteko tarteko-horma ikus daiteke.

9. Eranskina. 5. Irudia: Kanpandegi Kalearen azpitik pasatzen den Portuko Kalea. Hiriaren zenbait puntu nibelatu baldin baziren ere, egun Parte Zaharraren bi kale hauetan garai bateko muinoaren existentzia antzeman daiteke.

